

**HAUR ETA NERABEAK
BABESTEKO ETA SEXU
JAZARPEN, SEXU-ERASO EDO
SEXU ARRAZOIENGATIKO
ERASOETATIK BABESTEKO
PROTOKOLOA**

Guraso eta tutoreei zuzendutako laburpena

Guraso eta tutoreekin

Hauen parte-hartzea funtsezkoa izango da protokolo hau bete dadin eta beraien seme-alaben kirola osasungarria izan dadin beraien ongizaterako.

Gainera, Parte hartze zuzena dute protokoloan, nortasunaren arabera, beraien seme alaben interesak eta eskubideak, osotasun fisikoa eta mentala, errespetatu eta zaindu behar dituztelako.



Indarkeria motak	Prebentzioa	Detekzio goiztiarra	Esku-hartzea
<p>Bere buruari eragindako indarkeria</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Adingabeen autozainketaren eta indarkeria mota desberdinen detekzio goiztiarraren inguruko sentsibilizazioa. Adb: Suizidioa, osasun mentala, elikadura – nahasmenak... 	<ul style="list-style-type: none"> • Zure seme-alabek ondo pasatzen al dute kirola egiten? • Umore edo jokabide aldaketarik antzeman al duzu? • Zure seme alabek gorputzean lesio deigarriren bat duela antzeman al duzu? • Elikadura osasungarriari buruz hitz egiten al duzue? • Elikadurari buruz modu deigarrian hitz egiten al du? • Entrenatzaileekin edo taldekideekin komunikatzeko zailtasunak al ditu? • Batzuetan ez du nahi izaten entrenatzera joatea? 	<ul style="list-style-type: none"> • Entrenatzaileekin edo aholkularitza konfidentzialarekin hitz egin dezaketela jakin behar dute.
<p>Pertsona-arte indarkeria</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Klubean tratatu onean eta ongizatean oinarritutako jokabide - kodearen eta entrenamendu – estiloaren inguruko sentsibilizazioa zabaltzea. 	<ul style="list-style-type: none"> • Seme-alabei partiduez galdetzean, emaitzari buruz bakarrik galdetzen diozu? Edo gozamenari eta egunari buruz ere bai? • Seme-alabek taldekide eta entrenatzaileei buruz errespetuz hitz egiten al dute? • Taldekideek errespetuz tratatzen dituztela esaten al dizute? Irainik jasotzen dute? Gaizki sentiarazten dituzte? • Entrenatzaileek errespetuz tratatzen dituztela esaten al dute? • Irainik jasotzen dute? Gaizki sentiarazten dituzte? • Zure seme-alaben partidu, lehiaketa edo entrenamenduak ikustera zoazenean, animatu egiten duzu, edo entrenatzaileak, epaileak edo beste jokalariren bat kritikatzeko duzu? 	<ul style="list-style-type: none"> • Edozein gertakari entrenatzaileei edo aholkularitza konfidentzialari kontatu diezaioketela jakin behar dute.
<p>Testuinguru Indarkeria (araudikoa - egiturazkoa)</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Adingabeek erakundearen erabakietan parte har dezaten sustatu. • Bidezko tratua sustatu. 	<ul style="list-style-type: none"> • Zure seme-alabek taldearen, klubaren edo federazioen erabakietan parte hartzen al dute? • Zure seme-alabak taldean, klubean edo federazioan diskriminatuta daudela nabaritzen al duzu? • Adibidez, tratua desberdina, instalazioetarako sarbide desberdina... 	<ul style="list-style-type: none"> • Edozein diskriminazio entrenatzaileei edo aholkularitza konfidentzialari kontatu diezaioketela jakin behar dute.

KEXA EDO SALAKETEN AURKEZPENA

Klubaren barruan jazarpen edo abusu egoeren berri duen edonork kexa edo salaketa bat aurkeztu ahal izango dio horretarako izendatutako Aholkularitza konfidentzialari.

IRAURGI ISBren kasuan, Aholkularitza Konfidentzian parte hartuko duten pertsonak honako hauek izango direla adostu da: **Ibon Guridi** eta **Aitziber Vesga** klubeko kide gisa eta **Garazi Arregi** kanpoko pertsona gisa. Aholkularitzarekin harremanetan aurrez aurre ez jartzea nahiago duenak, Ibonekin eta Aitziberrekin harremanetan jar daiteke Klubeko telefonoaren bidez edo posta elektronikoko bat idatz diezaioke Garaziri helbide honetara: **prebentzioa@isb.eus**.

SALAKETA EDO KEXA ONDORENGO PROZEDURA

Salaketa aurkezpena

Nork: Bere burua sexu-jazarpenaren edo -abusuaren biktimatza duen kirolari, zuzendari, teknikari edo epaile orok sala dezake, edo jazarpen- eta abusu-egoeren berri duen edonork.

Forma: Idatziz edo ahoz.

Non: Harremanetan jartzen da klubeko zuzendaritzak horretarako izendatutako pertsonarekin (aholkulari konfidentziala).

Prozedura informala

- Aholkulari konfidentzialak salaketaren egiazkotasuna berresteko prozedura informala hasiko du, arazoa estraofizialki konpontzeko helburuarekin. Salatuarekin eta salatzailearekin bereizita bilduko da, eta kexa dagoela eta jokabide iraingarriak dituela jakinaraziko dio salatuari, eta diziplina-erantzukizunen berri emango dio. Salatuak azalpenak eman ahal izango ditu.
- Aholkulariak gehienez zazpi eguneko epea izango du.
- Biktima eta salatzailea babesteko ahalegina egingo da, egoki iritzitako kautelazko neurriak proposatuz, eta alderdiek kexa ebazteari buruzko akordiorik lortzen badute, prozesua amaitutzat emango da.

Prozedura formala

a. Hasiera

Nork: Bere burua sexu-jazarpenaren edo -abusuaren biktimatza duen kirolari, zuzendari, teknikari edo epaile orok sala dezake, edo jazarpen- eta abusu-egoeren berri duen edonork.

Forma: Idatziz edo ahoz. Aurretik prozedura informala egon bada, salaketa formala idatziz jaso beharko da.

Ikerketa: Aholkularitza konfidentzialak salaketaren egiantzekotasuna berretsiko du – inplikaturako pertsona ororen intimitaterako eta duintasunerako eskubidea errespetatuz –, eta, informazio guztia jaso ondoren, biktimari salaketa sinatzeko eskatuko dio.

Diziplina-organoari jakinaraztea: aholkulari konfidentzialak eskumena duen diziplina-organoari jakinaraziko dio egoera, kautelazko neurriak har ditzan. Horiek

ezin dituzte inola ere kirolariak kirol-jarduera garatzeko dituen baldintzak kaltetu.

b. Prozedura

Aholkulari konfidentzialak salaketaren berri emango dio salatuari, eta bilera bat egingo du salatuarekin eta salatzailearekin (pertsona horrek hala nahi badu), gertakariei buruzko informazioa biltzeko.

c. Ondorioa, neurrien ezarpena

Salaketa jarri eta gehienez ere 10 eguneko epean, aholkulari konfidentzialak txosten bat egingo du ikertutako kasuari buruz, eta lortutako ondorioak adieraziko ditu, ikusitako inguruabar astungarriak edo aringarriak barne. Diziplina-neurriak proposatu ahal izango ditu. Era berean, salaketa jartzen duten, lekukotzen duten edo ikerketan parte hartzen duten pertsonen aurka errepresaliarik ez egotea bermatuko da.

Azkenik, diziplina-organoak dagokion ebazpena emango du, ezarritako falten eta zehapenen tipifikazioaren arabera.